

*Mundu zahar hura,, mundu berria... Gizaldi larriak, belaunaldi gazteak... Fedea ala kultura? Fedea eta kultura? Nondik jo nahi luke gizarte berriak?*

*Euskal gizartean —beste hainitzetan bezalaxe— bideak mila dira, eta aukeratu egin beharko dugu. Baina, aukera behar honetan, ez datoz denak bat: batzuek, zabala dute zuhurtzia eta, sarriegi, hertsia irudimena; besteek, berriz, nahiago lukete irudimenaren mozkorra, begibista lauso bada ere...*

*Kritika. Ausnarketa behar da, denok gara pentsatu beharretan. Bortxatuak gaude asmo eta amets zaharrak aztertzeraz. Gure orainaldiaren nondinorakoa jakin nahi da, egin dugun aldapari begirada bat emanaz. Aztertzeak dira, gogo berri eta zaharberrituak ere. Eta hemen ere —berriz ere— kritika beharko da.*

*JAKINEK eginbehar honetantxe lagundu nahi lioke euskal irakurleari. Oraingoan, eman zitzaigun fedearen azterkari gara. Arriskutsua, benetan, gure gain hartu dugun eginkizuna. Ausartegia, beharbada. Hala ere barkagarri gertatuko ahal zaigu ausar-*

dia hau, eduki ba daduzkagun premia gorriek, kupidarik gabe eskatzen bait digute fede haren analisi egiazko bat.

*Euskal Herriak, erlijiozko fede jakin bat bizi izan du azken milakoan, Nafarroako Antso III-ak Leireko monastegia berritu zigunetik-edo. Oraindik ere, hein handi batetan, handik bizi gara, bizi da gure herria. Baina pentsamolde agerberriak ez doaz urbi-de bakar beretik.*

*Berrikuntza, ez da berrikeria. Ez eta oraingo berrikuntza ere. Baina, egiaz, berrikeria ere izan daiteke, itxaropide jator bat izan daitekeen bezalaxe. Oraingoan, bestetan bezalatsu, zer den eta nora doan jakin behar da eta jakin-nahi honetantxe finkaturik dago liburu honen ahalegina. Lehenbizi jakin, gero erabaki.*

*Fede zahar, eta berriak, kritikagarri dira, noski, askok bestelakorik pentsatu eta nahi badu ere. Izan ere, mitoak, ametsak, fedeak, ideologiak eta besteak bizirik daduzkagu, eta ekinean ari dira gure gizartea —gizonak— loisintzatzen, eztenkaten eta zigortzen... Bakoitzak du bere asmo ona eta zurikeria, jatortasuna eta bekatua...*

*Baina nahasmenduaren nahasmendian gal ez gaitezen, behar da izar bat, argia. Bizi-beharraren senak pentsamendua ere behar-ko du. Honegatik, zaharraren kritiko garenok berriaren kritikari ere izan behar dugu, alaxinko. Eskaintza asko egiten zaion herriak, merezi du, zer hauta dabilenean, eskaintzen zaizkion itxaropideen azterketa funtsezkorik. Mailarik apalenean izanarren, lan honixe ekiten diogu hemen.*

*Bi ekitalditan —bi liburutan, esan nahi da— burutzen dugu oraingo gure eginahala: Kultura eta Fedea eta Erlijioa hauzipean dira liburuok. Esku artean dadukazun honetan, Agirrebazategi, Zabaleta, Sagarna, Torrealday eta Bereziartua lankideek ematen digute beren analisisa.*

*Kultura, gizabide da, mundugintzan eta herrigintzan gizonago gaitezen. Fedeak ere gizon hori bera gidatu nahi luke. Jakin beharko da, beraz, zer den kultura, zer fedea. Eta zein da kultura-fedeen arteko zerikusia? Ideologia eta fedea erabat pareko ote dira? Zertan dira antzekoak, zertan berezgarri?*

*Fedea, gizona bezalaxe, gizartean bizi da eta, bistan denez, gizarteak eta fedeak ba dute elkarrengan eragin bat. Historikoki, gizarte bakoitzak bere fede-modua eduki du, gizarte-fenomenologia desberdinak agertu ditu. Hemendik gure galderak: gizarte aldatetak zein eragimen du fedean? Eta Euskal Herrian: zein ote liteke fedearen nahiz federik ezaren etorkizuna? Etorkizunean, fededunak zein egokiera ukanen ote du gizartegintzan? Fedea, gizartearen aldatzaile eta aurreratzaile ote da? Horrela izan behar ote du?*

*Ba da galderarik, eta bakoitzak du bere itxaropena. Etsipenaren losapetik, gutiena uste denean pizten zaigu gizonoi itxaropen hura. Erorialdiz eta esperantzaz oparoa dugu giza historia, eta kondaira hori argituaz José María Díez-Alegria mintzatuko zaigu itxaropen historikoaz eta kristau itxarokizunaz.*

*Pozik ginake ondoren datozkizun horrialdeok guzión etorkizunean bidelagun zuzpergarri gerta balekizkizu.*

JAKIN